



Fitxa teknikoa

Tatsu Nagataren piztia handiak. Ttartalo, 2013

Liburuaren aurkezpena

Tatsu Magatak bere buruagatik esaten du: "Nire gogo eta grina guztia naturaren zientzien zerbitzura jartzea erabaki nuen, txikienei natura maitatzen eta babesten erakusteko". Hizpidera ekartzen dizkigu hainbat animalia handi: balea, krokodiloa, gorila, hartza, otsoa, lehoia eta marrazoa. Haien ohiturak eta gizakienak alderatuko ditu zehaztasun zientifikoa, umorea eta trataera grafiko aberatsa tartekatzen dituelarik orriz orri.

Nola kontatu

Animalia bakoitzari eskaintzen zaizkion orrialdeak ikusi eta aztertu. Baina bata bestearen atzetik azaltzen ditugularik, lehenengo kontaketa batean bederen, ezaugarrien sistematizazioa eta fantasiaren arteko kontraesanak nabarmenduko ditugu. Izan ere, zientzia irizpideak fantasiarekin nahastuko ditu autoreak orriz orri, irakurlearen jakinmina piztu eta haren fantasiak eta, zenbaitetan, amets gaiztoak azalera ateratzen dituenarekin batera.

Proposamenak bideratzen

- Zer dakigu animalia handiaz
- Oritz orri gozatu kontzeptuez eta trataera grafikoaz
- Animaliak deskribatzeko ezaugarriak azpimarratu

Proposamenak zehazten

- Animalario fantastiko bat egin, eta trataera grafikoa mantendu
- Gelan dauden etxeko maskotak erabiliz liburutxo bat egin
- Animalia bakoitzaren ezaugarriak esan eta irakasleari diktatu erredakzio pautak aplikatuz.